

KONTZEJU IREKIAK ERATZEKO ARAUAK

Hauteskundeei buruzko legediak ezartzen duenez, aurreikusten da heldu den ekainaren 17an egitea udalbatza berriak eratzeko bilkura. Logikoa den bezala, kontzeju irekiak ere eratu behar dira hala antolatzen diren kontzejuetan.

Legez ez dagoenez berariazko araurik aurreikusita kontzeju irekiak eratzeko, zirkular honetan arau erraz batzuk eman gogo dira, arrazoizkoa denean aplikatuz udalak eratzeko dagoen araudia.

I.- ALDEZ AURREKO BALDINTZAK

- a) Hautatu den kontzejuko buruak bere egiaztagutuna aurkeztu behar du udalbatzako idazkaritzan. Orobat, Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak, eratze bilkura egin baino lehen, hautatutako kontzejuko burua nor den ziurtatzen duen ziurtagiria igorriko du kontzejura.
- b) Toki Araubideko Oinarriei buruzko Legearen 75. artikulua aurreikusten du hautetsiek nahitaezko dutela aitortzea balizko bateraezintasunaren kasuan dauden eta diru-sarrerarik ematen edo ematen ahal dien edozein jarduera egiten duten. Orobat, beren ondare-ondasunak aitortu beharko dituzte. Kontzeju irekiek araubide berezia izanik, herritar guztiak baitira batzarreko kide legearen aginduz, betebeharrak hori ezin zaie Kontzeju Irekiko kide guztiei eskatu, eta, hortaz, zalantzazkoa da kontzejuko buruari ere eskatzen ahal zaion betebeharrak hori. Edonola ere, Kontzejuak bidezkotzat jotzen badu buruak aitorten horiek egitea, NUKFn ereduak ditugu horretarako gure web-orrian eskura daitezkeenak (<https://www.fnmc.es/eu/>).
- c) Hauteskundeei buruzko legediak batzarrak eratzeko bilkurarako ezarritako eguna baino hiru egun lehenago onetsi behar da azken bilkuraren akta. Kontuan izanik ekainaren 17an eratuko direla batzar berriak, Batzarrak ekainaren 14an egin beharko du amaiera bilkura, helburu bakarra izanik aurreko bilkuraren akta onestea.
- d) Jarduneko buruak egin behar du eratze bilkuraren deialdia, gutxienez bi egun baliodun lehenago, eta, ahal dela, aurreko atalak aipatzen duen amaiera bilkuraren ondoren. Deialdian aipatu beharko da Kontzeju Etxearen bilkuren aretoan egiten dela bilkura, eta zehaztuko da zer ordutan izanen den.

II.- KONTZEJU IREKIA ERATZEA

Adierazi bezala, ekainaren 17an egingen da eratze bilkura. Kontzeju irekien kasuan, ahalik eta modurik errezenean egingen da, kontzejuko burua ez baita hautatu beharrik. Izan ere, maiatzaren 28ko hauteskundeetan hautatu zuten herritarrek.

Kontzeju irekiko kideak nor diren egiaztatu behar da, eta, horretarako, Kontzejuko hauteskunde eroldaren ziurtagiria erabiliko da.

Segituan, Adinaren Mahaia eratuko da, adin handieko eta adin txikieneko kontzejukideekin osatua. Adin txikienekoa arituko da idazkari lanetan, eta adin handienekoa mahaiko burua izanen da. Mahaiaren eginkizun nagusiak dira Kontzejua eraturik dagoela adieraztea, hautatutako kontzejuko buruaren egiaztatutuna eta ziurtagiria egiaztatzea eta hari hitzematea edo zina hartzea.

Kontzejuko burua karguaz jabetu ondoren, komeni da bilkura berean idazkaria eta diruzaina ere izendatzea kontzeju irekiaren kideen artetik, otsailaren 4ko Toki Administrazioa Berrantolatzekeo 4/2019 Foru Legearen Zazpigarren Xedapen Iragankorrek ezarritakoarekin bat.

Azkenik, kontzejuaren buruak eratze bilkura amaitutzat emango du.